

# Arrasate PRESS

1998ko  
Abenduak 11  
432. zenb.

## Bidegorrien ordua



IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA: MANU GOMEZ  
EUREN IKUSPUNTUTIK: TXIPI ORMAETXEA • ENPRESA: DEBA GARAIA





# Arrasateko OSASUN GIDA

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ..... ☎ 943 77 13 34

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



# Zain, baina adi

Lizarran hasi zen zurrunbiloa mantsotu egin da. Ez da seinale txarra. Itxura batean Aznar eta ETA lanean hasi dira. Ez dugu jakingo nortzuk, non, noiz edo zertaz ari diren. Ez behintzat han edo hemen *yo-estuve-elli-ka* argitaratuko diren albisteei esker. Xehetasunak bost axola, aurrera egiteko bideak zabalduz badoaz.



Mikel Irizar

Zentzu horretan, badirudi Aznar-ETA bikotea zuhurtasunean behintzat ados jarri dela. Beraiek ari dira ondoen, zarata gutxi eta ganoraz. Gune hau da bakerako ezinbestekoa, honek kale egiten badu, ez dago bakerik. Agian hauek ondo eta isilean ari direlako dabilta beste batzuk baldar, dagokien tokia eta eginkizuna aurkitu ezinean.

Hau idazten ari naizenean, ez dago

oraindik Jaurilaritzarik. Sozialistak ez ei dira sartuko eta EHk kanpotik lagunduko omen du. PSOEren ahulezia oraingoan oso kaltegarri suertatu zaigulakoan nago. Bakeak zubiak eskatzen ditu eta Jaurilaritzan sozialisten eta abertzaleen artean egin zitekeena, ez zen txarrena. Areago, zubi hori beharrezkoa da eta beste nonbaiten egin beharko da. Espainiako

sozialistak batuta eta indartsu egin izan balira, ausartago jokatu ahal izango zuten, Euskal Herrian duten sustrai historikoaz baliatuz.

PSEK ezin du Lizarrakoa kolpean irentsi, eta hori ulertzen da, baina ez dakit kale gorrian geratuta zer egitea espero duen. EHk ez du Jaurilaritzan sartu nahi eta hori zintzoa da, baina aldi berean ez du nahi beste batzuk sar daitezen, eta hori ezin dut ulertu. EAJ tinko ari da Lizarrakoaren

defentsan, eta hori zuzena da, baina ezin dut imajinatu begi ertzetik Arnaldori begira erituko den Jaurilaritzarik. Eta bitartean, bare antzean zegoen eraso giroa zuzperzen hasi da berriro. Espainiaren aldeko komunikabideak ostera zirikatzeo makina piztu dute eta gezurerdika eta gaiztakerika, zauriak ozpinaz nahi dituzte sendatu.

Egoera ez da saltoka hasteko modukoa, negarrez urtzeko bezalako ere ez. Ondo ari direnak presoekin laster zerbait egiten badute, poztu egingo gara. Eta besteak, ea ikasten duten orain baino hobeto aritzen!

Eta guk, zer? Alde batetik zain egotea tokatzen zaigu, hurrengo urratsak une oso itxietan erabakiko baitira. Baina aldi berean, eta Elkarrik abiatu duen kanpainarekin bat nator, adi egon beharko genuke. Bakearen alde bultzadak beharko dira, atzerapausoak galaraziko dituzten akuiluak.

Aukera hau galtzen bada, denak izango gara galtzaile.

**PSOEren ahulezia oraingoan oso kaltegarri suertatu zaigulakoan nago**

*“Mondragon taldea mito bat da mundu osoko enpresa alorrean. Bilbon bildu ginen soziologo guztietatik denek nahi zuten Mondragon ezagutu”*

Jose Larrea Gaiarre

# 47

**miloi pta emango die udalak herriko ikastetxei**

Datorren urtean Arrasateko Udalak 47.400.000 pta. ko diru laguntzak emango dizkie herriko ikastetxe guztiei. Aurtenean baino %2 gehiago. Hainbat faktore izaten dira kontuan dirua banatzeko orduan: ikasle kopurua, premia bereziak betetzea, eraikuntzen titulartatea eta hizkuntza ereduak.

ITURRI ONETIK

## Ikastolak batuko ote dira?

Leintz Bailarako zenbait ikastolak —San Frantzisko Xabier, San Viator, Umezaintza eta Almen— elkarrizketatan ari omen dira, etorkizun hurbilean edo, bat egiteko. Elkarrizketak ez bide dira atzo goizeko kontuak, orain pare bat urte hasi ziren eta. Hala ere, azken aldi honetan bizkortu egin dira, antza.

Esan liteke jaiotze tasaren jaitzierak baduela zerikusirik honekin guztiarekin. Izan ere, askoz ere haur gutxiagorekin, gero eta zailagoa egiten zaie ikastolei gastuei eutsi ahal izatea, kontuan izanda, gainera, Hezkuntzaren sare publikotik kanpo daudela.

Ez litzateke, bada, harritzekoa izango halako batean aipatutako lau ikastolak batu egingo direla entzuten badugu.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariek:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Oca. **Publizitatea:** Kaitin Allende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñarain (Tel.: 943 79 02 26) **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berri-malea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Antola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bingoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sanz, Iker Berandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26) © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko fotomuntaketa: Txos Azurmendi.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileraren laguntza



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 11**  
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Larunbata, 12**  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Igandean 13**  
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Astlehena, 14**  
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Asteartea 15**  
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala
- Asteazkena, 16**  
• Gauez eta egunez: Morale, San Andres
- Osteguna 17**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospiti. 943 03 53 00  
Igualatorria ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ..... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Onati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 76 14 69  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

**ERGUINDARRAK**

**E**san osten Jose Letonak 1461. urtean bauzela Erguinak Mondrauen. Juan Karlos Guerrak esaten auen bezela bere liburuetan. Erguin baserrian, Urribarrin, euren bizitza egiten zeben.

Nere berraitona Jose Mateo Erguin Arregi errotraria zan Musakolan, 1860. urtean. Nere aitona Jose Ramon Erguin Larrea Musakolako errotraria zan 1883. urtean eta "Artorotz" izena gaitzizena ipini otzen artortz ederra eitxen zauelako.

Nire aita errota bernean jaio zan 1891. urtean eta esaten zauen ibiltzen baino lehenau igarixen eta murgilien ikasi zauela presapeien. Joan Erguin Arana zan bere izena, baina Juanito *Artorotz* esaten eutzen.

Horrenbeste urtean egon dien Erguinak Mundrauen, eta ontxe agur einbiotzau, bi dauz, —Fualberto eta Joaquin ezkongaiak—. Hirurogeita hamarretik gorakuak eta kanpotik ezpada etortzen bateron bat bigarren aldiz agur.

Donostian, Gasteizen, Zarautzen eta Beasainen bizi dira Erguindarrak.

*Angel Erguin*

**EUSKARAZ BIZITZEAGATIK EPAITUAK**

**H**ala da, datorren abenduaren 16an euskaldunontzat arrotza den "justizia" epaitegi batean beste injustizia bat gertatzera doa. EHEko zortzi kide epaitzera doaz euren aurkako epaiketa bat mozteagatik. Arrazoiak: ezin zuten euren hizkuantzan defendatua, epaileari euskaraz hitz egitea debekatua zuten.

Euskaldunontzat, eguneroko bizitzan ematen diren kapituluetako bat da aurrekoa, nahiz eta eguneroko erasoak hain nabariak ez izan, ikastetxe ezberdinetan, ospitaleetan, erakunde publikoetan eta beste hainbat esparrutan euskaldunoi egiten zaizkigun eraso eta mespretxuak eguneroko errealitate gordina dira, hauek gure ingurune hurbilean ere ematen direlarik. Adibidez, Arrasaten epaitegiekin ditugun harremanetan, noiz egin dezakegu euskaraz? Bake Epaitegiko notifikazioak zergatik igortzen zaizkigu beti espainol hutsez? Bailarako epaitegi nagusian, Bergaran, nolatan ez dago euskaraz dakien epailerik?

Erantzun jakineko galderak amaigabeak izango lirateke, hauek ez baitira euskararen aurka gertatzen diren eraso guztiak. Arrasateko euskaltzale gehienok ez jakin arren, gertatzen dira egoera gogorragoak. Adibidez, euskaraz hitz egiteagatik atxilotua izatea epaigelan bertan edo arrazoi berberagatik abokatua garraxika tratatzea da Fran-

cisco Javier Perez-Olleros epaile txit agurgarriaren jarraera euskaldunokin; Bergarako epaitegian euskaraz mintzatu nahi dugunokin, alegia; hori guztia Baskongadetan, behinik behin, euskara ofiziala izanik eta araututa dagoenean.

Ez goaz kasu gehiagorekin gutuna luzatzera, soilik abenduaren 11n arratsaldeko 19:30etan Seber Altube enparantzian egingo den kontzentrazioa animatzen zaituztegu, injustizia hauek guztiak salatzeke eta berriro gerta ez daitezen, eta bereziki, abenduaren 16an Donostian epaituko dituzten zortzi euskaltzaleekin bat egiteko. Euskal Herri libre eta euskalduna nahi dugulako.

Euskaldunontzat ez dago justiziarik!

*Arrasateko EHE*

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
*jatetxea*  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25



# Baduzu Durangoko azokara joateko ohiturarik?

Aurten lehenengo aldiz, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen azoka sei egunez izan da zabalik.



**Lierni Galdos**  
(26)  
Langabea

Bai. Ia urtero joaten naiz, gehienetan taldean edo familiarian. Gero eta handiago da.



**Amaia Altuna**  
(37)  
Irakaslea

Bai, ia urtero joaten naiz, jeneralean familiarekin. Begiratu egiten dugu eta erosi.



**Mikel Arizmendi**  
(21 urte)  
Ikaslea

Ez. Inoiz ez naiz izan. Nire lagunak joaten dira, baina ni ez. Ez dut astirik izaten.



**Ana Aranzabal**  
(31 urte)  
Langilea

Ez. Pena da, baina inoiz ez naiz joan. Iaz haurdun nongo-elako eta aurten ume txiki bat daukadalako.



**Maialen Gonzalez**  
(11 urte)  
Ikaslea

Ez. Nire ezagun batzuk joan behar dira, baina ni ez.




**Andoni Lopez**  
(12 urte)  
Ikaslea

Entzuna badut, baina inoiz ez naiz izan. Lagunak ere ez dakit joango diren. Nire osaba seguruenik joango da.



**Jose Luis Zubizarreta**  
(58 urte)  
Langilea

Bai. Joan izan naiz eta aurten ere bai. Aurtengoan disko batzuk erosi ditut.



**Juanjo Zabarte**  
(48 urte)  
Langilea

Bai. Hemen nagoenari beti joaten naiz. Oso interesgarria iruditzen zait.

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

Olentzero bezala,  
Gabonetako oparietarako  
zatoz ORTO-LAGUNera.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



# 11 ostirala

■ ZINEA

*Snake Eyes* Alai Zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

# 12 larunbata

■ ZINEA

*Perdidos en el Espacio*, Alai Zineman, 17:00etan (umeentzat) eta *Snake Eyes* 19:30etan eta 22:00etan.

■ EGINGO DUGU JAIA

Eguerdiko 12:30etan emango zaio hasiera Egingo Dugu Egunari. Ordu horretan trikita eta diru eskatzea egingo da herriko kaleetan. 16:00etan haurrentzako bonba japoniarrak botako dira eta txokolatada egingo da Seberon. 18:30etatik aurrera, txistorra eta ardoa banatuko da Seberon. Material salmenta ere egingo da.

■ JAIALDI FLAMENKOA

Garcia Lorca jaio zeneko 100. urteurrena ospatuko du Al Andalus zentruak.

Horretarako jaialdi flamenkoa antolatu du. Jose de la Pica, Manuel Martin eta Paco el Guerra kantuan eta Antonio Gutierrez eta Juanma Maroto gitarran arituko dira Al Andalus zentruan, arratsaldeko 18:30etatik aurrera.

Egun horretan ere jostunen eguna ospatuko dute. Afa-lostea Prisma bikotea arituko da goizaldea arte.

■ KONTZERTUA  
GAZTETXEAN

Alcala de Henareseko A Palo Seko eta Frenopatics bergararrak arituko dira Gaztetxean. Gaueko 22:00etan hasiko da *trashouk* eta *hardcore* kontzertua.

■ BEDOÑAKO JAIAK

Etxaflero jaurtiketarekin hasiko dira jaiak, goizeko 09:30etan. 10:00etan, ehiza eguna hasiko da auzoentzat. 17:30etan emakumeak briskan eta gizonezkoak mus txapelketan arituko dira. Ordu berean haurrentzako jolasak jarriko dira eta gaueko 21:00etan auzo afaria, bertsolariek eta trikitilariak alaitua.

■ ANTZERKI SAIOA

Bordaxuri taldeak Pierres Larzabalen *Bordaxuri* lana eskainiko du Arrasateko Senideak taldeak antolatuta. Saioa Amaia Antzokian izango da, gaueko 22:00etan. Sarrera 1.000 pta. kostako da eta aurrez, berriz, 800 pta. Sarre-rak Kajoi eta Irati tabernetan eros daitezke.

# 13 igandea

■ ZINEA

*Perdidos en el Espacio*, Alai Zineman, 17:00etan (umeentzat) eta *Snake Eyes*, 19:30etan eta 22:00etan.

■ BEDOÑAKO JAIAK

Etxaflero jaurtiketa izango da 09:30etan. Eguerdiko 12:30etan meza. Ondoren, dantzarien saioa izango da, bai eta doke txapelketa ere.

# 14 astelehena

■ ZINEA

*Snake Eyes*, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikalek antolatuta, txistu kontzertua eskainiko da Arrasate Musikaleko areto nagusian. Saioa arratsaldeko 19:30etan izango da.

# 15 asteartea

■ ZINEA

*Snake Eyes*, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan.

# 16 asteazkena

■ ITOITZ MINTZAGAI

Itzoitzeko koordinadorko Patxi Gorraizek Itzoitzeko urtegiari buruzko hitzaldia eskainiko du. Saioa Montteronen izango da, arratsaldeko 19:00etan.

## UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

PUB  
HAIZEA



Plus Ultra  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



# 17 osteguna

■ **ZINEA**

*Los Miserables*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ **JOKIN ZAITEGI SARIEN BANAKETA**

AEDk antolatutako Jokin Zaitegi XII. Itzulpen laburren sari banaketa egingo da, 19:00etan Monterronen. Ekitaldia. Jose Mari Velez de Mendizabalek hasiko du, Jokin Zaitegiren figuraren inguruan hitz eginez. Sari banaketaren ostean, luntxa emango da AEDren egoitzean.

■ **EGUBERRIKO KONTZERTUA**  
Arrasate Musikalek Eguberriko Kontzertua eskaniko du datorren ostiralean, abenduak 18. Saioa Amaia Antzokian izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

■ **III. OLINPIADAK**  
Deba Garaiko Mankomun-  
teak Deba Garaiko Koadri-  
len arteko III. Olinpiadak  
antolatu ditu. Olinpiadak  
Oñatiko Zubikoa kiroldegi-  
an izango dira, abenduaren  
30ean, Deba Garaiko 16  
urtetik gorakoentzat. Parte  
hartu nahi dutenek,  
abenduaren 19a baino  
lehen eman beharko dituzte  
izenak, 4.000 pta  
ordainduz. Deba Garaiko  
Kiroi Zerbitzuetan.  
Irabazleak 70.000 pta.  
eskuratuko ditu. Bigarren  
sailkatuak, 35.000 eta  
hirugarrenak, berriz,  
20.000 pta.

■ **LITERATURA LEHIAKETA**  
Loramendi euskara  
elkarteak antolatutako  
X. Loramendi literatura  
lehiaketan parte hartzeko  
epea abenduaren 18an  
amaituko da. Aurten ere bi

atal egongo dira: Lehen  
Hezkuntzako eta DBHkoa.  
Lehenengoek, ipuina eta  
poesia landu beharko  
dituzte. DBHkoek, berriz,  
ipuin, kantu, kontu zahar  
eta abarren bilketa egin  
beharko dute. Berri  
gehiagorako, 943 77 09  
70ra deitu.

■ **ARTE PLASTIKOEN LEHIAKETA**  
Gure Leku tabernak arte  
plastikoen lehiaketa anto-  
latu du. Nahi duen guztiak  
har dezake parte. Lanak  
aurkezteko epea otsailaren  
15ean amaituko da.


■ **HORMIRUDI LEHIAKETA**  
Bazkide kanpainarako  
hormirudi lehiaketa  
antolatu du AEDk. Lan  
guztiak "Ametsa Eraikiaz  
Doa. Egin zaituzte bazkide  
AEDn" leloa eraman  
beharko dute eta mezua  
ondo irakurri beharko da.  
25.000 pta. lortuko ditu  
hormirudi hautatuaren  
egileak, abenduaren 29an.  
Lanak aurkezteko epea  
abenduaren 22an amaituko  
da. Hormirudiak 34x30  
neurrikoak izan beharko  
dira. Berri gehiago AEDn  
bertan jaso daiteke.

■ **ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN**  
Santi Altunak abenduaren  
18an irekiko du bere lanen  
erakusketa Harresi  
aretoan. Lanak ikusi ahal  
izango dira 18:00etatik  
20:00etara eta larunbat  
eta jaiegunetan  
12:00etatik 14:00etara  
eta 18:00etatik  
20:00etara izango da.


■ **IDAZKERA ERAKUSGAI**  
Abenduaren 19an itxiko da  
idazteko artearen inguruan  
Monterronen ikusgai  
dagoen erakusketa.  
Ordutegia: egunero  
18:00etatik 20:00etara  
eta larunbat eta  
jaiegunetan 12:00etatik  
14:00etara eta  
18:00etatik 20:00etara.

■ **GABONAK DONOSTIAN**  
Gizartekintzak Gabonak  
Donostiako Orly hotelean  
pasatzeko aukera eskain-  
tzen du, hirugarren adine-  
koentzat antolaturiko Gabo-  
nak 1998 programaren  
barruan. Izen ematea Ber-  
garako Gizarte Zentruan  
egingo da, abenduaren 16a  
baino lehen. Berri gehiago:  
943 76 21 40.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

**EKLIPSE**  
  
Arropak, tatuajeak,  
piercing-ak,..  
Biteri Etorbidea, 15  
Tel.: 943 77 02 69

  
**DISCOPOLIS**  
DISKO KONPAKTOAK • KASSETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK  
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA  
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behean • ARRASATE  
Tel.: 943 - 77 02 13

**UDAL ARKITEKTOA**  
Arkitekto plaza modu finkoan betetzeko hautaketa  
prozesu bat ireki du Arrasateko Udalak.  
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, azaroaren 11n,  
argitaratu dira deialdia arautzen duten oinarri  
arauak. Arrasateko udaletxean hartu ahal izango  
dira horiek.  
**Izena emateko epea** abenduaren 24an bukatuko da.  
Arrasaten, 1998ko abenduaren 4an  
**ALKATEA**  
 **ARRASATEKO UDALA** Pertsonal Saila ■



USTEAK USTE

*Full-Monty jostunek eratua*

**J**ostunek aspaldi izan dute ohitura Santa Luzia egunean afaria egiteko. Ondo jan, bapo edan, kartaka egin eta barre algara batzuek osatu izan dute ohiko menua.

Aurten, ordea, ez dira horrekin konformatu. Full Monty film zoragarria ikusi eta gero, begiei atsegina eta bihotzari poza emango dieten ikuskizunak antolatu dituzte han-hemenka: gizonen strip-tease erabatekoak.

Filmean ez bezala, biluztuko diren mutilak ez bide dira herrikoak izango, seguruenik Arrasaten ez dagoelako filmeko Liverpoolen zeukaten langabezia. Hala ere, egingo nuke Mondragon Hotela eta Jam dantzalekua bete egingo direla.

Bistan da ohiturak dexente aldatu direla azken urteotan, baita jostunen artean ere, garai batean talde tradiziozale izan bazen ere. Orain ez dugu inor pulpitoan infernuaren sugarren beldurra gure buru gainetan eragiten. Premiarik ere ez.

Ondo pasa dezatela jostunek eta Santa Luziak anpara ditzala.

Joxe Aranzabal



Mugarriak, odolosteak, mugarriak, pilota...

Txipi Ormaetxea

**A**skori ahalgingarri bazaar ere, apustuzale amorratua nauzue. Herri honetan beste anitz bezala. Baina igaro den domekakoak erakutsi dit aldatu egin behar dudala. Jada apustuak galtzen ere hasia naiz, eta behar bada une egokiena iritsi zait planto egiteko. Eugik 13 bakarrrik egin zituen eta nik 15 behar bazkaria irabazteko. Zestuar gozogile arpajole alana irriz lehertzen egongo da nire kontura. Beste bat ere galdu nuen domekan, hau benetan bitxia. 12ak 20 gutxitan Udaltx puntan ginen harmonia bikainean lagun mordo bat (AEK-koak ere han baitziren gu gailurrera orduko) hamarretakoarekikoak egin da. Nik esan nuen 12etarako Sara "merenderuen" nintzela. Trabesa: 1.000 odoloste. Senperrenak egin banituen ere (bidenabar, bide berri motzena zabaldu), Sarara orduko Eugi-Beloki 4 eta 2 zihoazen. Erlojuak 12:12 markatzen zuen. 1.000 odoloste galduak. Irabazlea Aitor, Unai durangar bertsolaria- ren deiturakidea.

Beraz, aitari sarri entzuna (Jokue ez da errenta, hobe ollue erre-ta) aintzat hartzeko tenorea ailegatu zait jada. Gaur-

tik esan dezaket: apustuzalea nintzen.

Eta zer egiten genuen ba hainbeste jende Udaltx puntan? AEDk eta Besaidek antolatu "Mugarriz mugarri... Arrasate ezagutzen" ibilaldi sortaren 3.a eta azkena zen domekako. Hauteskunde egunean hasitako lekura, Kataidera, iritsi ginen, Udalan hasi eta Besaide, Udaltx, Sara (garai bateko Zarea) eta Epelerreka ondotik igaroz. Oraingoan 25 lagun izan ginen. Egun ederra egin zigun eta umorerik ez zen falta izan gure artean. Gainera, eguna eta ekimen interesgarri hau borobiltzeko, amaiera bazkari batekin eman genion Zigorrolako Menetan. Zer esan? Nik oso ondo pasatu nuela. Arrunt gustuko ditudan bertso-kantuez abusatzerik izan ez bagenuen ere, zinemaz zerbait ikasteko parada izan nuen behinik behin (orain ez

dut Barrio filma ikusi arteko bakerik izango).

Domekako ibilaldiaz gain, aurreko biak ere aipatu beharko genituzke. Nik neur aldetik balorazio baikorra egiten dut. Jendearen erantzuna ere ona izan da: urriaren 25ean 19 lagun; azaroaren 8an 26 eta azaroaren 22an 25. Eta azken honetan gehiago ere izango ziren. Esaterako, Gasteizko Maite eta Bego biak etorri ahal ez izanaz penaturik ziren. Geurekin mendira taldeak ere egun berean Palomares-erako irteera antolatua baitzuen (baina lasai, laster batean AED-koekin batera ibilaldi polit bat egingo dugu eta!).

Eta uste dut ekimen honek gerora ere jarraipena izan beharko lukeela. Eta hobeto ere aterakidagukeela ez dut dudarik egiten. Ildo horretatik proposamen bat egitera ausartzen naiz. Badakit antolaketa aldetik ez dela kontu erraza, baina agian lau etapatan alderdi kulturala hobeto aprobetxatuko genuke. Hots, bide laburxagoa egin, lasaiago ibiliz eta inguruko aberastasunei gehiago erreparatuz. Esaterako. Lezetxiki ez dugu ikusi. Eta ez litzateke hain zaila berriro indusketan ari diren arduradunen batekin ados jartzea azalpenak eman diezazkigun. Udalak Nebera ingurua ere ikus daiteke. Berdin Egiaundi baserriko txakolinaren inguruko kontuen berri jakin, beti ere jabearekin adostu ondoren. Eta hauek adibide batzuk besterik ez dira. Kontu jakingarri gehiago ere izango dira.

Bueno, nahikoa da gaurko. Besarkada handi bat ibiltari jator guztioi (eta Itxarori, berba hartu diogula: hurrengoan bai!)

“ Agian lau etapatan alderdi kulturala hobeto aprobetxatuko genuke ”

\* EHUko irakaslea



# Arrasate soinuuz blai

## Jaiotzak

- Martin Errasti Agirrebeitia. Azaroaren 20an.
- Ioritz Gutiérrez Calleja. Azaroaren 24an.
- Xabier Nieto Errasti. Azaroaren 24an.
- Karen Ruiz Arana. Azaroaren 26an.
- Josu Garro Letamendi. Azaroaren 30ean.
- Hosaya Bollón Taveros. Abenduaren 3an.
- Sahonmi Bollon Taveros. Abenduaren 3an.

## Ezkontzak

- Juan Jose Regodesebes Usatorre eta Miren Edurne Mendiaratz Jimenez. Zibilez. Abenduaren 4an.

## Heriotzak

- Felisa Dobarro Cobelo. 77 urte. Azaroaren 24an.
- Naulina Villarejo Campo. 82 urte. Azaroaren 28an.
- Benito Azkoaga Azurmendi. 75 urte. Azaroaren 29an.
- Fermín Galan Gonzalez. 73 urte. Abenduaren 2an.

## Andoni Frutos gaztea hil da

Joan den asteazkenean Andoni Frutos eskalatzaille arrasatearra hil zen Cuencan, auto istripu batean. Andonik 22 urte zituen eta Aldaigainen bizi zen. Cuencan izan zen beste bi lagunekin eskalatzan. Etxera bidean istripu bat izan zuten automoblean. Ondorioz, Andoni hil egin zen eta beste lagun bat larri zaurituta geratu zen Cuencako ospitalean. Goian bego!

Pasa den asteburu luzean, akordeoi doinua nagusitu da Mondragoen. Batetik, "Arrasate Hiria" Nazioarteko VI. akordeoi txapelketa izan da. Bestetik, Gipuzkoako XIX. lehiaketa eta azkenik, Gipuzkoako XI. jailadia. Guztira, 300 soinu-jole inguru etorri dira Arrasatera.

Hiru txapelketa hauetako sariak asteartean banatu ziren Amaia antzokian. Jose Maria Loiti alkatea, Koruko Aizarra Kultura diputatua eta Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzako Maribel Insausti ibili ziren lan horretan. Aurkezpen lanetan, berriz, Ixiar Oreja, Aitor Furundarena, Niko Lizeaga eta Joseba Tapia izan ziren Amaia Antzokia leporaino beteta zegoen.

### "ARRASATE HIRIA"

Dragan Vasiljevic serbiarra izan da aurtengo "Arrasate



Joxean Goikoetxea ere izan zen.

Hiria" Nazioarteko akordeoi txapelketako irabazlea. Finalera heldu ziren zazpi artean, 17 urteko gazte hau gailendu zen, 137 punturekin, bigarrenak baino 0,75 puntu gehiago. Vasiljevic-ek, beraz, 500.000 pezeta eta dragoia irabazi zituen.

Bigarren saria, beste jugos-

laviar batentzat izan zen, Vladimir Blagojevic-entzat, hain zuzen ere. Honek, 250.000 pezeta eta garaikurra irabazi zituen. Aurten lehenengo aldiz eman den Publikoaren Sari berezia ere eskuratu zuen. Hirugarren saria Finlandiara joan zen, Veli Kujalaren eskutara. 100.000 pezeta eta garaikurra izan ziren berarentzat.

Soinujole guztiek oso maila ona erakutsi dute aurten seigarren aldiz egin den nazioarteko soinu lehiaketa honetan. Epaileek lan zaila izan zuten sariak banatzeko orduan. Honen adibide da, ohitura ez izan arren, laugarren sailkatua ere saritu izana. Eugeny Petrov errusiarra izan zen laugarren sari hau irabazi zuena. 60.000 pezeta eta garaikurra eman zioten. Gainera, finalera parte hartzaile guztiak pasatu ziren, lehen kanporaketan epaileek ezin izan baitzuten inor kanpoan laga.

## Hormirudi lehiaketa

Leire Zubikarai 26 urteko arrasatearrak irabazi du Santamas hormirudi lehiaketa. Guztira bost proiektu aurkeztu ziren eta Leirerena atera da irabazle.

Fotokopiaz eginiko muntaketa honetan, Arrasateko leku adierazgarriak, azokako irudiak eta festa giroa adierazten duten irudiak azaltzen dira.

Leire Zubikarai Arte Ederrak ikasi zituen Leioan. Honelako lehiaketa batera aurkezten den hirugarren aldia da. Dagoeneko bi irabazi ditu, oraingo hau eta San Juanetan beste bat.



**NAROKI**  
LIBRYBENDA

Zure oparia  
hemen aurkituko  
duzu!!

**NAROKI**  
BITXITEGIA

Opari bat  
erosketa  
bakoitzeko  
ZATOZ!

**ARRASATE**  
HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**OSORIK**  
PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



## Jostailu eta liburu bilketa

Deba Garaiko Gurutze Gorriko jendea jostailuak eta liburuak batzen aritu da aste honetan. Gabonak direla eta, bai libride ekonomiko gutxi dutenen seme-alabentzat opariak bildu nahi izan dituzte. Jasotako jostailu eta liburuen banaketa Errege bezperan egingo dute, Eusko Jaurlaritzak eta udalek emandako zerrenda baten arabera. 18 urtetik beherako haur edo gazte bakoitzak, lau jostailu eta liburu bat eskuratu dute.

Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko jostailuak asteazkenetik ostirala artean batu dira. Mondragoeko kasuan, CIE n bildu dituzte, lehengo tren geltokiarren parean. Aretxabaletako eta Eskoriatzako jostailuak ere Arrasatera ekarri izan dira.

Gipuzkoako Gazteen Gurutze Gorriko koordinatzailea den Jokin Aristizabalek jakinarazi digunez, hamabi urte daramatzate horrelako kanpainak egiten. Jendeak batez ere puzzleak lagatzen omen ditu. Gehienetan opariak nahiko egoera onean ematen dira.

# Gure artistak Durangon



Brutal Melodyren konpaktoa.

Brutal Melody Arrasateko taldeak 20 minutuko Biolentzia izeneko konpaktoa atera du Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokarako. Lau kantuk osatzen dute Brutal Melody taldearen lan berria, DDT zigiluarekin kaleratu dutena. Hau ez da talde honen lehen lana, ordea. Lehendik ere bazuten maketa bat, "Mundu Faltsua" izeneko.

Juan Martin Elexpuruk prestatu duen *Euskal Idazleen Ipuin Erotikoak* liburuak Marian Porcel arrasatearraren ipuin bat ere jasotzen du. Txalaparta argitaletxearen liburu honek 10-12 ipuin biltzen ditu.

Jon Sarasua bertsolari are-

txabaletarrari egindako elkar-riketa ere liburu batean jasotzen du Joserra Garziak. "Jon Sarasua Bertso Ispiluan Barrena" da liburuaren izenburua eta Alberdania argitaletxeko Zerberri sailak argitaratu du. Joxerra Garzia bera da sail honen zuzendaria ere.

Horretaz gain, Juan Martin Elexpuru Bergarako idazleak ere *Krabelina Beltza* izeneko liburuak erakutsi du Durangoko azokan. Juan Martin Elexpuruk haur eta gazte literatura idatzi du batez ere;

tartean *Fernando Plaentziarra* aski famatua den liburuak. Horretaz gain, *Arrasate Press* astekariaren hastapenetan artikulatuak ere idazten zituen.

Azoka bukatu eta gero, Juan Martin oso pozik zegoen Txalaparta argitaletxeak emandako berriei. Esan ziotenez, berak zuzentzen dituen liburu biak egun haiek salduenak edo, izan zitezkeen. Izan ere, bakoitzatik 700 bat ale saldu omen dira. Hasiera ezin hobea produktu berri batentzat.



Joxerra Gartzia eta Juan Martin Elexpururen liburuen azalak.

**UNZUETA**  
J A T E T X E A

- 1) Babarrunak (aza eta odolostearekin)
- 2) Bakailao frijitua edo bildots menestra
- 3) Postrea+edaria

**2.800+7% BEZ**

• Ospakizunak  
• Jaunartzeak eta bataioak

Zabala auzoa. ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**LOGOPEDIA ZENTRUA**  
ARRASATE


Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**TXOKO TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak





## KOLDO BERRIZ ARRASATEN

Joan den ostegunean Koldo Rodriguez —ATBko albistegietako lehen esataria— izan genuen Arrasaten. San Viator ikastolara etorri zen hitzaldi bat ematera. Sestaon bizi da orain, beste fraide batzuekin batera. Asko gogoratzen da Arrasatez. Baita gu ere beraz.



## IZENAK

### Rosa Mondragon

kazetari aramaioarrak Mondragon Unibertsitateko Komunikazio lanak egingo ditu egun erdiz. Garai batean Arrasate Presseko kazetaria izan zen. Gaur egun TU-Lankide aldizkarian dihardu egun erdiz. Mahai ingurua saioa aurkezten du ATBn.




### Marian Porcel

kazetari mondragoetarrak "Gauerdiko Ezkena Goxoa" ipuina argitaratu du Euskal Idazleen Ipuin Erotikoak izena duen liburuan. Arrasate Pressen eta ATBn lan egin ostean, gaur egun Arrasate Irratiko esataria da.



## NIREAK DIRA, AIZU!

Bolo-boloan poltsak bete ezinda ibili ziren umezaintzako haurrak ostiralean. San Nikolas zela eta, ospatu beharra zeukaten. Argazkikoa larri zebilen goxokiak lapurtuko ote genizkion.



## JOLASTU ETA JAN, PRIMERAN!

Ondo ibili ziren gero Ferixalekuko ikasleak San Frantzisko Xabier egunean. Herri kirolak, aerobic, jolasak, bertsoak, dantzak... Denetarik izan zuten santuaren eguna ospatzeko. Goiz erdian, gainera, indarrak berreskuratzeko, sekulako txistorra otartekoak jan zituzten.

### Eguneroko eskaintzak

- Buffet-Gosaria
- Bazkariko menua eta karta
- Kafetegia
- Piano-Taberna
- Afariko menua



### Eskaintza bereziak

- Bataioak
- Jaunartzeak
- Ezkontzak
- Lagunarteko edo laneko bilerak

**Pertsona kopurua edozein izanda, ospakizun pribatuetarako erreserbak egiteko aukera. Galde ezazu!!**

Biteri Etorbidea, 16  
Arrasate  
Tel: 943 71 24 33



# Lehendabizi proiektua: biz

**B**izikletak ez du kutsa-zen, isila da, ez du aparkatzeko arazorik sortzen, diru gutxirekin eskura daiteke, distantzia txikietan garraiorik azkarrena da... Mila eta bat arrazoi daude bizikletaren erabilera sustatzeko. Hala ere, Gipuzkoan, gezurra badi-rudi ere, ez dago bizikletaz ibiltzeko azpiegitura egokirik. Txirrindulari profesional askoren habia izan arren (munduko txapeldun bat ere badau-kagu gure artean), Gipuzkoan bizikleta hartu eta errepidera irtetea oso arriskutsua da.

Hutsune honetaz jabeturik, Arrasateko Lurrats eta Donostiako Kalapie elkarteek, *Lehendabizi* izeneko proiektua aurkeztu berri dute elkarlanean. Hauen helburua da Gipuzkoan barna bidegorri sare bat sortzea. Bidegorriak bereziki bizikletak eta oinezkoak ibiltzeko bideak dira. Proiektu honen sustatzaileen esanetan "Gipuzkoan egin liteke bizikletentzako bide sare bat. Horrezaz gain, gomendagarria eta onuragarria ere litzateke Gipuzkoako gizarte osoarentzat".

## ISTRIPUAK MURRIZTEKO

Gaur egun errepidean bizikletaz ibiltzea, infernuko atea jotzea bezala da. 1990 eta 1994 urteen artean estatu espainiarrean 16.400 txirrindulari trafikoko istripuen biktima izan ziren. Hauetatik 760 hil egin ziren. Bidegorri sare baten eraikuntzak istripu hauen murriztea ekarriko luke. "Gustatu arren, askok eta askok ez dute txirrindua erabiltzen segurtasun nahikorik eskaintzen ez duelako. Gutxie-



Edozein izan daiteke txirrinduzalea.

Euskaldunon bizikletazaletasuna ez da atzo goizekoa. Urtero Tourreko aldapa gogorrenetan hor egoten dira euskal zaleak txirrindulariak animatzeko asmoz. Milaka eta milaka dira bere aisialdian, bizikleta hartu eta errepideko arriskuen menpe jartzen direnak. Egoera normaltzeko eta arriskuak uxatze aldera, Donostiako Kalapie eta Arrasateko Lurrats taldeek *Lehendabizi* proiektua aurkeztu dute. Gipuzkoan barna sare bat eratzeko sortu den lehendabiziko proiektua.

**"Bidegorri sare bat onuragarria eta gomendagarria litzateke Gipuzkoako gizarte osoarentzat"**

neko segurtasuna eta erosotasuna bermatuko balira, balizko txirrindulari hauek animatu egingo lirateke bizikleta hartzera", *Lehendabizi* proiektuko sustatzaileen esanetan. *Lehendabizi* proiektua ez dago bizikleta kirol gisa erabiltzen dutenei soilik zuzendua, Gipuzkoako biztanle gehienei baizik.

Horrekin batera, bidegorriek gure artean dagoeneko kirol nazionala bihurtu den eguneroko osteratxo egiteko aukera ezin hobea ere eskaintzen dute.

## ERRENTAGARRIA

*Lehendabizi* proiektuaren sustatzaileen arabera, "ingurugiroa errespetatzen duen proiektua da gurea. Gainera, Gipuzkoako lurraldearen eza-gutza atsegingarri, natural eta sakonagora bultzatuko gintuzke. Bestalde, autobidea, burdinbidea eta antzerakoan aldean, gurea oso proiektu merkea da. Beste herrialde batzuetan frogatu da egindako inbertsioa epe laburrera amortizatzen dela".

## GIPUZKOAKO SAREA

Aipatu bidegorri sareak bost ardatz izango lituzke Gipuzkoan barna. Kostaldeko ibilbidea, Urolakoa, Oriakoa, Urumea-Leitzarangoa eta Debakoa. Azken hau Deban hasi eta zati handi batean N-634 errepidearen bideari jarraikiz, Eibarreraino joango litzateke. Maltzagatik aurrera aldiz, Vasco-Navarro burdinbide zaharraren marrazketari jarraituko lioke. Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga bidegorriz lotuz.



# Letaz Gipuzkoa ezagutzen

## Lurrats: bidegorrien eskaeran aitzindari

Bidegorrien beharraz oharturik, Arrasateko txirrinduzale talde batek Lurrats elkartearen sortu zuen 1994ko abenduan. Hortxe dihardute lanean Jose Felix Diaz de Tuesta, Jose Mari Eraña, Mikel Lezamiz, Isidro Elduaien eta Eukeni Olabarrieta, besteak beste. Lurratsekoek bidegorrien premiaz konturatu eta burdinbide zaharra berreskuratzeko proiektu bat aurkeztu zuten. Maltzaga-Urbina autobidearen nondik norakoak aztertzeke sortu ziren eztabaida taldeetan Lurratsek aurkeztutako ponentziak talde guztien (ekologista, autobidearen aldekoak...) oniritzia jaso zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiaren onespina ere jaso zuten, baina kasu hauetan gertatzen den legez, luzerako jo dezake. Bitartean, Arrasate inguruko bizikletazaleok errepidearen arriskueta- ra makurtu beharko gara.

## ARABAN ETA NAFARROAN

Gipuzkoan ez bezala, Araban eta Nafarroan bidegorriak errealitate dira dagoeneko. Arabako Foru Aldundiak trenbide eta abelbide zaharrak berreskuratzeko plana jarri du abian. Proiektu honen bitartez, 300 km prestatuko dira txirrinduzaleek eta oinezkoek erabil ditzaten. Dagoeneko 50 km eginik daude.



Bidegorriek oinez eta bizikletaz ibiltzeko aukera ematen dute.



Holandan bidegorriak errealitate dira.

Nafarroan ere Bidasoako burdinbidearen ibilbide zaharra egokitu dute, Irun eta Elizondo elkartuz. *Lehendabizi* proiektuko sustatzaileek uste dute bidegorri hauek nolabaiteko lotura izan beharko luketela Gipuzkoako lurraldearekin.

## EUROVELO PROIEKTUA

Europako Txirrindularien Federakuntza *Eurovelo* izena duen proiektu bat lantzen hasi da, bizikletentzako ibilbide handien sare transeuroparra sortzeko asmoarekin.

Proiektuaren helburua 15-20 urteren epean kontinentea alde batetik bestera zeharkatuko luketen 12 bizikleta bide handi sortzea litzateke. *Lehendabizi* bultzatzen dutenen esanetan, "geroaldi gertu batean *Eurovelo* proiektuak izugarriko garrantzia izango du. Gure helburua da Gipuzkoako bidegorri sarea ere *Eurovelo* proiektuaren barnean sartzea".

## APIRILEAN JARDUNALDIAK

Euskal Herrian eta Europan zehar garatzen ari diren ekimenen berri emateko eta herri erakundeak azpiegitura hauek egitera bultzatzeko asmoz, datorren urteko apirilaren bukaeran jardunaldiak egingo dira Arrasaten.

Arrasateko Lurrats eta Donostiako Kalapie taldeek antolatuko dituzte jardunaldiok, lelo honekin: "Bizikletentzako Azpiegitura eta Bidegorriak". Jardunaldiok Arrasateko Udalaren laguntza izango dute. ■

Anartz Agirre




# Deba Garaia Higiezin agentzia

Deba Garaia higiezin agentzia 1990ean sortu zen Arrasaten, izenak adierazten duen bezala, Deba Garaia zerbitzua emateko. Hala ere, lehen sukurtsala Deba Behean ireki zuen, Elgoibarren. Bigarrena, berriz, Bergaran, 1992an.

Jesus Markaide da Deba Garaia agentziaren sortzailea. Fagor utzi eta gero, 1988an higiezin agente bihurtu zen, lehiaketa gainditu eta gero.

Era honetako agentzien betebeharrak printzipalena hauxe da: etxea, lursailak edo antzekoak (bestela ere onibarrak edo higiezinak deitzen direnak) saltzen direnean, bermatzea salerosketa ondo egiten dela alde biantzat. Horrekin batera, Deba Garaia aitzindari izan zen salerosketa horien ondorio fiskalak ere kontuan hartzen. Markaideren ustez, hauxe izan zitekeen, hain zuzen, Deba Garaia agentziaren hasierako zabal-kundearen arrazoiatariko bat.

Zabalkunde honek Arra-



Jesus Markaide bere bulegoaren aurrean.

saten bertan tokiz aldatzera bultzatu zituen. Iturriotz kale-tik Maalako errebalera pasatu ziren eta gaur egun hortxe daude, Pio Barojaren "El Cura de Monleón" eleberriko On Jabier protagonista nagusiaren etxean, hain zuzen ere. Horaurki ditzakegu Jesus Markaide bera eta Rosa Iñurrategi.

Askotan entzun du Jesussek, politikariaren ahotsa batik bat, alperrik dela Arrasaten etxebizitza gehiago egitea, "biztanleria jaisten ari dela-

ko". Ez dago bat ere ados arrazoi horrekin. Batetik, etxebizitzaren premia ez delako sortzen pertsona jaiotzen denean, helduaroan baizik, etxetik alde egiterakoan. Etxetik alde egiteko garaia ere zazpi bat urtean atzeratu da. Horrez gain, hirukoiztu egin omen dira pertsona bakoitzak etxebizitzarako behar dituen metro koadroak. Arrasateko etxebizitza askok eta askok ez dituzte betetzen bizitzeko gaur egun

eskatzen diren erosotasun baldintzak. Eta, azkenik, Arrasate izan delako Deba Garaian arlo horretan gutxien hazi den herria.

1995ean Deba Garaiak egin zuen Arrasateko lehen alokatze hitzarmena euskaraz. AEDko bazkide batek eta kanpotik etorri zen maistra batek sinatu zuten, konturatu zirenean ordua arte berba erdirik ere egin ez zuen maistrak ederto egiten zuela Axularren hizkuntza.



## LASAGABASTER-en

### AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# ZORIONAK

A black and white photograph of a young child with curly hair, looking directly at the camera. The child is holding a baby in their arms. The baby is wearing a dark, long-sleeved outfit. The background is a light, textured surface with some faint, illegible text. The overall mood is intimate and tender.

UNITED COLORS  
OF 1999  
BENETTON





Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak Iturripeko kiroldegiko harmailetan entrenatzen segitzen du eguraldi txarra egiten duenean.

# Atletak negualdian

Arrasate Kirolak Atletiko taldeak neguko probetako hiru-garren jardunaldia izan zuen joan den asteburuan Anoetan. Probak probintzi arteko, Euskal Herriko zein Espainiako txapelketetan parte hartzeko txartela lortzeko balio zuen.

Orain arte mondragoetar bakarrak lortu du txartel hori. Unai Sarabia da bera eta 200 m.ko lasterketan aritzeko txartela lortu zuen, horretarako gutxieneko denbora lortu zuen eta.

Bestalde, eta joan den larunbatean lortutako emaitzei dagokionez, 60 m.ko proban, Unai Sarabia bera izan zen azkarrena: 7"29. Bere errekorra 7"25ekoa da, baina Unai ez zuen irteera ona egin eta horrek ehuneneko batzuk gehiago egitea ekarri zion. Bi irteera ezeztatu zituzten epaileek eta horrek irteera hobearekin egitea oztopatu zion. Espainiako marka 7"15ekoa da eta herriko azkarrena, berriz, Aitor Arnaiz da 7"10ekoa da, 1993an Anoetan lortua.

Datorren larunbatean txapelketetarako txartela lortzeko aukera berri bat izango dute herriko atletak. Anoetan izango da, larunbatean.

## Atletiko taldea, kirolez kirol

Aurtengo Atletiko taldea 46 kirolarik osatzen dute, alebinetako promozio taldea kontuan hartzen ez badugu, hauek, 20 neska-mutiko baitira.

Lastertasuna	Urteak	Maila
Jurdana Ayala	13	Haurra
Jon Duque	14	Haurra
Mikel Apraiz	16	Gaztea
David Banclo	16	Gaztea
Goreti Igartua	16	Gaztea
Ibai Jurado	16	Gaztea
Oier Talledo	16	Gaztea
Jon Igartua	17	Juniorra
Unai Sarabia	17	Juniorra
Egoitz Lugarizaristi	18	Gaztea
Martin Davila	22	Seniorra
Manu Anguas	24	Seniorra
Lorentxo Avila	29	Seniorra

Fondo Erdia	Urteak	Maila
Iñaki Juez	16	Gaztea
Fernando Nogales	16	Gaztea
Alazne R. de Munain	16	Gaztea
Unai Elorza	17	Juniorra
Ivan Juez	18	Juniorra
A. Perez de Arenaza	18	Juniorra
Ihitz Bengoa	18	Juniorra
Felix Sanchez	18	Juniorra
Jaime Sanchez	22	Seniorra
Raul Canales	25	Seniorra
J. Ramon Petreñas	34	Seniorra

Fondoa	Urteak	Maila
Oliver Fernandez	18	Juniorra
Alfonso Luermo	41	Seniorra
Javier Mentxaka	42	Seniorra
Cesar Diez	48	Seniorra
Enrike Kabiketa	48	Seniorra
Mari Jose Gil Gil	58	Seniorra

Hesiak	Urteak	Maila
M. Arizmendiarieta	16	Gaztea
Remi Biosdado	18	Juniorra
Juan Carlos Martin	34	Seniorra

Altuera jauzia	Urteak	Maila
Jokin D. de Lezama	24	Seniorra

Jauzi hirukoitza	Urteak	Maila
Iker Jurado	16	Gaztea
Rafa Gomez	16	Gaztea
Maykel Llanes	16	Gaztea

Luzeera jauzia	Urteak	Maila
Mikel Uribealgo	30	Seniorra

Pertika jauzia	Urteak	Maila
Jonathan Perez	17	Juniorra

Txabalina jautiketa	Urteak	Maila
H. Barrutiabengoa	22	Seniorra

Disko jautiketa	Urteak	Maila
Oskar Gavilan	16	Gaztea
Mikel Iturbe	26	Seniorra

Mailu jautiketa	Urteak	Maila
Felipe Martin	16	Gaztea
Aitor Urizar	26	Seniorra

Pisu jautiketa	Urteak	Maila
Anartz Azkarraga	18	Juniorra
Jon Andueza	17	Juniorra



Sailkapenak



Hurrengo partidak

Abenduak 12, larunbata

Zaldibar

- 09:50 Bukanak - Rotor Bolbo.
- 11:00 Aterpe - AT Celaya
- 12:00 Potroak - You Know
- 13:00 Nar. Mec. - Potrosorri
- 14:00 Saukelu - Serengeti HC
- 15:00 Gar. Oscar - Lauterbru.
- 16:00 Balon Rojo - Aldibi
- 17:00 Cons. Luso - Kamasu.
- 18:00 Fraguel Gol - Branka
- 19:00 Ke Oxtias!!! - Leya

Iturripe A

- 11:00 Lontxo Tab. - AC Surkos
- 12:00 DKB - Koka Juniors
- 13:00 Aita Menni - Eusko Label
- 14:00 Rex 23 - Alai Gozokiak
- 15:00 Aurrera Bolie - Zotz
- 16:00 Etxemobel - Txantxiku

Iturripe B

- 13:00 EPEH - Jako al Rey
- 14:00 Betrayer - Jotakabau
- 15:00 Decadencia - Nuevo
- 16:00 Insert Coin - Kom. Alpar.

Abenduak 13, igandea

Zaldibar

- 09:50 Pepelus - Makai
- 11:00 Los Heredia - Diego Ant.
- 12:00 Orlando Pir. - Xhasss
- 13:00 Sokoakoak - totem

Atsedena:

- B Taldea:**  
Irati STS, KKJauri
- D taldea:**  
Dribling

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	6	6	0	0	37	7	12
AC SURKOS	6	6	0	0	41	20	11
LONTXO TAB.	6	5	1	0	34	9	11
PEPELUS	6	5	1	0	23	11	11
XHASSS UGARTE	6	4	1	1	38	23	9
INSERT COIN	6	4	0	2	17	19	8
KOMANDO ALPAR.	6	3	1	2	27	17	7
ALDIBI	6	3	0	3	29	13	6
KE OXTIAS	6	3	0	3	24	15	6
LEYA	6	3	0	3	14	16	6
REX 23	6	2	0	4	17	20	4
BALON ROJO	6	1	2	3	12	26	4
SERENGETI HC	6	2	0	4	13	29	4
SAUKELU SCREAM	6	1	0	5	14	22	2
MAKAI	6	1	0	5	10	33	2
BUKANAK	6	1	0	5	10	38	2
ALAI GOZOKI	6	0	1	5	16	32	1
ROTOR BOLBO.	6	0	1	5	9	35	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AURRERA BOLIE	6	6	0	0	28	9	12
TXANTXIKU KIR.	6	5	0	1	49	11	10
KKJAURI	6	4	2	0	33	15	10
IRATI STS	6	4	1	1	38	18	9
NARANJA MECAN.	6	4	1	1	40	23	9
LOS HEREDIA	6	4	1	1	18	14	9
GARAJE OSKAR	6	4	0	2	31	14	8
DIEGO ANTONIO	6	2	2	2	17	26	6
DKB	6	2	1	3	27	25	5
KOKA JUNIORS	6	2	1	3	19	23	5
BORROCK&ROLL	6	2	1	3	20	25	5
AT CELAYA	6	2	1	3	15	21	5
ZOTZ	6	1	2	3	31	27	4
POTROSORRI	6	2	0	4	13	37	4
LAUTERBRUNENN	6	0	3	3	17	33	3
PUB ARROGOI	6	1	0	5	7	25	2
ETXE MOBEL	6	0	1	5	13	40	1
ATERPE KAFETE.	6	0	1	5	13	43	1

Emaizak

A TALDEA

- Bukanak 1 - Ke Oxtias 2
- Lontxo Tab. 7 - Serengeti HC 1
- Insert Coin 3 - Aldibi 2
- Saukelu Scream 7 - Makai 3
- Alai Gozokiak 1 - Kom. Alpargat 6
- Xhasss Ugarte 7 - AC Surkos 10
- Rex 23 2 - Pepelus 5
- Orlando Piratas 4 - Leya 1
- Rotor de Bolbo. 3 - Balon Rojo 3

B TALDEA

- Borroch & Roll 0 - Naranja Mec. 1
- DKB 6 - Zotz 3
- Los Heredia 1 - AT Celaya 0
- Aurrera Bolie 1 - Pub Arrogioi 0
- Txantxiku Kir. 3 - Diego Antonio 4
- Lauterbrunnen 5 - Koka Juniors 5
- Etxe Mobel 1 - Irati STS 7
- Garaje Oscar 6 - Potrosorri 0
- Aterpe Kafetegia 0 - Kaka Jauri 11

D TALDEA

- Construcciones Luso 2 - EPEH 3
- Potroak 5 - Bar Nuevo 2
- Dribling 3 - Jotakabau 2
- Decadencia 5 - Eusko Label 1
- Totem 2 - You Know 4
- Fraguel 1 - Aita Menni 2010 3
- Sokoakoak 6 - Jako al Rey 5
- Kamasutra 3 - Betrayer 9

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
DRIBLING	6	5	1	0	26	13	11
YOU KNOW	5	5	0	0	28	8	10
SOKOAKOAK	6	5	0	1	27	19	10
POTROAK	5	4	0	1	23	9	8
EPEH	6	3	2	1	23	17	8
AITA MENNI 2010	5	3	1	1	21	16	7
JOTAKABAU	6	3	1	2	12	13	7
BRANKA TABERNA	5	2	2	1	22	19	6
DECADENCIA	6	2	1	3	15	12	5
BAR NUEVO	5	2	1	2	20	20	5
FRAGEL GOL	6	2	1	3	14	15	5
TOTEM	6	2	0	4	16	18	4
JAKO AL REY	6	1	2	3	19	21	4
BETRAYER	5	1	1	3	16	22	3
KAMASUTRA	6	1	1	4	16	25	3
CONSTRUC. LUSO	6	0	0	6	9	34	0
EUSKO LABEL	6	0	0	6	16	42	0

Oraingoan Borroch & Roll

Aste honetan Borroch & Roll taldeari tokatu zaio txapelketa-tik kanpo gelditzea. Arauek diotenez, ezin da partidarik jokatu hiru jokalaria eta atezainarekin bakarrik. Borroch taldekoak hiru jokalaria eta atezaina bakarrik zeudela eta, publikotik taldea osatzeko behar zuten laugarren jokalaria lortu zuten. 5 eta 9 galdu zuten Naranja Mecanicaren aurka. Ez zien ezertarako balio izan. Zaldibarko txapelketan izena emanda dau-den jokalariek baino ezin dute parte hartu.

**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

**IRATI TABERNA**  
Ferreries kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE




# Piarres Larzabalen "Bordaxuri" antzerkia Arrasaten

Datorren larunbatean "Bordaxuri" antzezlan izango da ikusgai Amaia antzokian, gaueko hamarretatik aurrera. Izen bereko taldeak taularatuko du drama eta tragedia nagusi dituen obra hau.

Bordaxuri jauntxo da istorio honetako pertsonaia nagusia, gizon zuzena baina aldi berean bortitza. Bi seme-alaba ditu Bordaxurik: Teresa eta Piarres. Azken honek Klotilde maite du. Emakume hau aitaren gustukoa ere bada, ordea. Hortik sortuko dira istiluak, eta Piarres bera espetxera eramango dute aita tiroz hil nahi izanaren akusaziopean.

Piarres Larzabalek orain dela 48 urte idatzi zuen antzezlan hau. 1915ean jaio zen Piarres Lapurdiko Azkaine herrian, eta Uztaritzeko seminarioan apaiz ikasketak egi-



Antzezleriak "Bordaxuri" antzezten.

ten ari zela ekin zion antzezlanak idazteari.

Francis Basteroten zuzendaritzapean taularatuko dira obra honetako sei antzezleak:

Titto Agerre, Marie-Jo Barbau, Frantxua Cousteau, Maialen Estekahandi, Mizel Jorajuria eta Eñaut Larralde.

Senideak taldeak antola-

tu du larunbateko antzerki emanaldi hau, eta sarrerak Kajoi eta Irati tabernetan daude jadanik salgai, 800 pezetatan.

## Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eman dio Illarri film laburrari

Milioi eta erdi pezetako dirulaguntza jasoko du *Illarri* filmak Eusko Jaurlaritzatik. Manu Gomez arrasatearrak egin du filmaren gidioa, eta Maider Egues eta Sergi Lopez izango dira pertsonaia nagusiak.

Zazpi minutuko iraupena izango duen film hau martxoan grabatuko dute. Lau egunean egingo dute grabaketa. Eskoriatzako

Apotzaga auzoko hilerria, Arrasateko Unión Cerrajera lantegia eta Hendaiaiko zenbait bunker izango dira istorioaren kokaleku nagusiak.

EEBBetan aurkeztuko den film hau Canal+ telebista kateak ere erosi du. ETBren ere hartuemanen ari dira.

Manu Gomezek irudi eta soinu ikasketak egin

zituena Bilbon, eta zine ikastaroa ere jaso zuen Urnietan. Hantxe ikasten ari zela deitu zioten Daniel Galparsoroaren "A ciegas" filmean zuzendari laguntzaileran lanak betetzeko. Besteak beste "Alas de mariposa" eta "Rigor mortis" filmetako argazki zuzendari izanda, Aitor Mantxolaren ere aritu da argazki departamentuan.



Manu Gomez zinegile arrasatearra.

### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

### TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferreries, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



### Pavimentos AGR AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA  
Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



## ■ ATBren programazioa

### LARUNBATA, 12

**13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Mahaingurua, Kaleidoskopia, Soinuz Blai, Astebete.

### IGANDEA, 13

**13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Mahaingurua, Kaleidoskopia, Soinuz Blai, Astebete.

### ASTELEHENA, 14

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Astebete** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Mondrasport**  
Itxaro Zubillagak aurkeztuta.

### ASTEARTEA, 15

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Mondrasport** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Musiklasik.**  
Arrasaten egingo den Nazioarteko IV. Akordeoi Lehiaketaren irudiak eskeiniko dituzte Iñaki Olaizola eta Marta Izagirrek.

### ASTEAZKENA, 16

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Musiklasik** (Errepika).  
**20:00/20:30 Berriak.**  
**21:00 Aurrez-aurre.**  
Kamele Zuazubiskarek Jesus Mari Plazaola, hainbat artzain txakur txapelketatan irabazle izan denarekin izango da.



Jesus Mª Plazaola

### OSTEGUNA, 17

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Musiklasik** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Ekilan.**  
Alberto Gorritiberea Herri Irratiko esatariaren eskutik, enpresari buruzko programa.  
**22:00 Soinuz Blai.**  
Iban Gonzalezek aurkezturik, hainbat estilotako musika entzuteko parada izango duzue musikazale guztiok.

### OSTIRALA, 18

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Ekilan** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Astebete.**  
Maider Osak aurkezturik asteen zehar izan diren gertaera garrantzitsuenen errepasoa.  
**22:00 Soinuz Blai.** (Errepika).

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

**CE**

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**M ARENAZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07



**URONDO**  
Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Aretxabaletako Asuncion kalean. Tel.: 943 79 46 14.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. 100m<sup>2</sup> ingurukoa eta egoera onean. Tel.: 943 79 21 46.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 94 445 10 71.

• Lau gazte gara gure autogestiorako nekazaritza eta eskulangintza proiektuak ditugunak. Beraz, gustura hartuko genuke berrizteko dagoen baserri zahar bat. Tel.: 943 79 48 09 (Itziar).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 20 20 (Iker).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 46 61.

### 5. Etxeak osatzeko

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Pertsona bat behar du etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez deitu.

• Logela bat behar dut ikasleaz osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Alokairuan hartuko nuke etxebizitza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazkenetan).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

• Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

• Gela bat alokatzen da Arrasateko erdi aldean. Tel.: 943 79 87 59.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Bi mutilek pisu merke bat alokatuko genuke. Etxebizitza osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garaje itxia salgai Zarugalde kaleko 16.ean. 16m<sup>2</sup>koa. Tel.: 943 79 02 79.

• Lonja salgai Uriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

### 9. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugalde gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokiak alokagai kalealdean, Zarugalde gertu. Tel.: 943 79 07 24.

• Garajea alokagai. Musakola aldean. Tel.: 943 79 37 38 (eguerdian).

### 15. Errentan hartzeko

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 94 07 (Leire).

• Taberna alokatuko nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 444 658

• Lagun talde batek garajea edo lonja alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 69 64 (Xabier) edo 943 79 61 44 (Dani).

### 14. Errentan emateko

• 75 m<sup>2</sup>ko lonja bat alokagai Anbotu kalean. Tel.: 943 79 98 07.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun andra gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• 40 urte inguruko emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko. Bokazio eta esperientziaduna. Tel.: 617 20 59 49.

• Turismoan lizentziadunak (euskara eta ingelesa daki) bidaia agentzia batean eta antzekoetan lan egingo luke. Tel.: 943 76 37 80.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko edo pertsona nagusiei konpainia egiteko. Tel.: 943 71 53 74 (goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera).

• 27 urteko neska prest legoke haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Taberna batean ere lan egingo luke. Zortzi urteko esperientzia du. Tel.: 943 77 08 13 (M<sup>a</sup> Carmen).

Eperientzia handiko emakumea prest dago erropa konponketak egin, sukaldetako lanak edota plantxa egiteko, orduka. Tel.: 943 79 59 43.

• Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Italiar lizentziatua italiarako eskolak eta itzulpenak egiteko gertu. Tel.: 943 76 65 24.

### 18. Eskaerak

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (asteartean izan ezik).

• Ille apaintzaile esperientziaduna behar da. Tel.: 943 76 29 58.

• Emakumea behar da arratsaldeetan 6 eta 8 urteko umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 65.

• Aramaioko taberna batek zerbitzaria behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Aramaioko taberna batek garbitzailea behar du asteburuetan. Tel.: 945 44 50 86.

• Sukaldaria laguntzailea behar da taberna batean, asteburu gauetan lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

• Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Utzi telefonoa eta izena erantzungailuan eta deituko dizugu. Tel.: 943 77 11 92.

• Andra bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tel.: 943 77 04 60 (Margari).



**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

- Soprano profesionalak kantu eta ahots eskolak ematen ditu. Tel.: 943 79 65 24.
- Margo eta marrazki artistikoko eskolak ematen dira. Tel.: 943 79 19 23 (eguerdian edo gauean deitu).

**21. Eskaerak**

- DBH 4. mailako ikasle batek matematikako eskolak hartuko lituzke larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara. Tel.: 943 79 93 07.
- Ingeniaritzako lehen kurtsoko bi mutil zientzia irakasle baten bila gabiltza (fisika, kimika, matematika, kalkulia). Tel.: 943 79 959 52 (20:00etatik aurrera).

**MOTORRA**

**23. Saldu**

- Peugeot 106 salgai. Tel.: 943 79 62 12 / 943 79 75 93.

• Ford Sierra 2.01 Guia salgai. Egoera onean. 130.000 km. Prezioa adosteko. Tel.: 943 79 72 34. David.

• Nissan Vanetta furgoneta salgai. VI-M. Merke-merke. Tel.: 943 79 58 29.

• Peugeot 106, 1.100 injection salgai. 93 urtekoa. 70.000 km. 650.000 pta. (negoziatzekoak). Tel.: 607 86 16 98

• Yamaha salgai, 93koa. Egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Fiat 1 turbo salgai. 118 cv, 91koa, 90.000 km. Egoera onean. Tel.: 943 79 45 50 (Jesus).

• Peugeot 306 XSI salgai. 2000cc<sup>3</sup> 2 ate, aluminiozko llantak, 70.000 km. Merke. Tel.: 943 79 78 32.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

- Bulegorako altzariak salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 84 35.
- Flex markako literak salgai. Egoera onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.: 943 79 57 64.

• Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objetiboa. Starbiltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsalde edo gauez.

• Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia ere bai. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat salzen dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

**27. Erosi**

• Zerrajerako egurrezko berogailu zahar bat erosiko nuke. Tel.: 943 79 11 24 (Ramon).

• Musikako disko singelak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

**29. Eman**

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eman itzazu Zaldispeko aparkalekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

• Egoera onean dagoen eta 90 zm.ko luzera duen ohea (koltxoirik gabe)

eman nahi dut, eta baita lanpara bat ere. Tel.: 943 79 68 57 (goizetan deitu eta Teresaz galdetu)

**31. Galdu**

• Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Urkulun, zorro eta guzti. Tel.: 943 79 10 39

• Urrezko eskuturreko bat galdu dut, azaroaren 27an, Arrasateko erdi aldean. Lau izen daramatza grabatuta. Inork aurkitu badu deitu mesedez. Tel.: 943 79 52 08.

**32. Aurkitu**

• Ordularia agertu da Sokoa tabernan. Real Madridekoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).

**33. Bestelakoak**

• Arrasatek Bilbora joan-etorria egiteko autobusa jarriko da. Goizeko 07:30etan irtengo da eta arratsaldeko 17:30etan itzuliko. Tel.: 943 79 01 00 (dei egin goizeko 09:00etatik 17:00etara. (Pedro Bideguren).

B	O	W	N	D	C	A	R	I	S	M	A
H	E	M	I	T	S	U	B	I	S	H	I
A	K	D	S	Ñ	O	J	B	Y	U	G	E
H	R	M	S	B	S	8	O	F	D	C	Y
U	J	S	A	I	G	V	U	V	4	O	P
H	Y	U	N	D	A	I	L	O	Y	N	R
M	U	T	M	W	L	T	I	R	O	F	U
I	T	V	S	E	L	O	Y	H	V	O	L
C	K	I	E	V	O	L	V	O	L	R	E
R	B	T	J	U	P	Y	M	B	X	T	T
A	G	O	I	M	E	R	C	E	D	E	S
O	T	B	E	J	R	Y	F	R	M	E	L
P	A	C	C	E	N	T	K	E	R	I	U

**Bila itzazu sei  
AUTO MARKA  
desberdin...**

**Ez begiratu gehiago,  
zatoz Aldibi-ra!**



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.



Auto Suecia



Aldikar autoak, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

**ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxa: 943 79 65 65**





Prozesio zaharretan Merxe Etxe  
ko Txakurra, 2020

**A**rrasatek 700 urte bete zituenean, ospakizun berezia egin zen herrian. 1960a zen eta maiatzaren 14an, herriari ize-na ematen dion dragoiaren kondaira irudikatu zen.

Argazkian, orduan herri-

ko neskarik politena izateko aukeratu zuten Gazteluondo-ko Mertxe Etxebarria agertzen da. Dragoiak irensteko prest.

Dena den, orduan ez zen horrelakorik gertatu, hantxe baitzeuden herriko olagizonak neska pertxenta dragoiaren hortzetatik salbatzeko gertu.

### Oharra:

430. alean atera genuen-fotozaharrean, guztiak karlistak zirela adierazi genuen, iturriek horrela esanda. Jose Ramon Mendizabalen senitartekoek jakinarazi digutenez, berriz, behartuta egon zen hura alkateorde postuan eta ez karlista zelako.

**Argazkia:**

Arrasateko Udala.

**Berriematea:**

Arrasateko Udala.

## Etxe Aundi

Hotela\*\* Jatetxea



**Gaur ez bada, bihar ezkonduko zara ...  
Etxe Aundin zure zain gaituzu.**

**Ospatu zeure ezkontza Etxe Aundi jatetxean (250 lagunentzako aretoak)**

Kontsulta itzazu 1998rako menu berriak, ezkontzako opari batekin txundituko zaitugu

Torrauzo, 9 • OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Faxe: 943 78 32 90





ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

## Gabonetan opari ezazu osasuna

**A**urten oparia  
aukeratzea  
errazagoa izango duzu.  
Zatoz Lirain Zentrura  
eta benetan eskertuko  
dizuten oparia  
aukeratu.

### ESTETIKA-ZENTRUA

- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Ezpainen makillaje iraunkorra
- Manikura eta pedikura
- Lokatzak
- Kosmetika produktuak

### PLAZERRA

- Dutxa eskoziarra
- Hidromasaje-bainuontzia
- Masaje lasaigarria
- Lurrun-bainuak
- Presoterapia

Kirola, edertasuna eta plazerra  
elkartzen dituen tokia



Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

**JAPAN**

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

V RONCATO VALIGERIA

# Ipek Denda



**Neguko modarik berriena  
zain duzu IPEKen. ZATOZ!!**

Iturriotz, 19 Herriko Plaza  
ARRASATE



**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohdraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZUZENA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86